

## **2015EKO URRIAREN 6AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-**

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### **ZINEGOTZIAK:**

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

**IDAZKARIA:** Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko irailaren bata izanda, hemeretziak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate-Lehendakari andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

Akta hasi baino lehen, zoriondu nahi izan ditu Kuadrillako Lehendakaria eta Lehendakariordea izandatu dituzten Herrador jauna eta Ruiz de Loizaga jauna hurrenez hurren.

Era berean, adierazi nahi die publikoko pertsoneri zerrendako gai bakoitzaren ostean parte hartu ahal izango dutela, betiere eztabaida sortu gabe esandako momentu horretan.

### **1.- 2015EKO IRAILAREN 1EKO AKTEN ONESPENA**

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2015eko irailaren 1eko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaien Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

Zkia.	Data	Edukia
-------	------	--------

131	2015/09/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA BATZAR EKONOMIKOARI-KANPOALDEKO AROTZERIA ALDATZEKO
132	2015/09/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA 72 TERRAZA BERRITZEKO SANTIURUTZE KANPEZUKO ARRABAL,
133	2015/09/03	OBREN LIZENTZIA EMATEA ITXIERA-HORMA BERRITZEKO ETA ERRETEILA EGITEKO.
134	2015/09/03	OBREN LIZENTZIA EMATEA DAUDEN LEHIOEN MONITORIZAZIORAKO
135	2015/09/10	IBILGAILUAREN BAJA DELA ETA TMIGZ ITZULTZEKO DEKRETUA
136	2015/09/10	FAKTURAREN ONARTZEA
137	2015/09/10	LIZITAZIO-AGIRIEN ONARTZEA ORBISOKO UR-6 URBANIZAZIORAKO
138	2015/09/10	KONTSULTATEGIA IZANGO DEN PARTZELAREN BANANTZEA
139	2015/09/11	BANKU-TRANSFERENTZIA
140	2015/09/17	BETEARAZTEKO AGINDUA MAYOR KALEA, 1 ANTOÑANA
141	2015/09/17	BETEARAZTEKO AGINDUA MAYOR KALEA, 13 ANTOÑANA
142	2015/09/17	BETEARAZTEKO AGINDUA MAYOR KALEA, 21 ANTOÑANA
143	2015/09/18	IRISGARRITASUN OBREN ESLEIPENA
144	2015/09/18	OBREN LIZENTZIA EMATEA TERRAZA BERRITZEKO SANTIURUTZE KANPEZUKO LA VILLA,28
145	2015/09/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA ERRETEILA EGITEKO HORRADICHO-ENTREPEÑAS ERREPIDEA,48
146	2015/09/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA GARBITOKIA KONPONTZEKO BUJANDAKO AABB
147	2015/09/24	OBREN LIZENTZIA EMATEA IGOGAILUA JARTZEKO SUBIDA AL FRONTON, 22
148	2015/09/24	1 POLIGONOA 877 LURZATIA PREKARIOAN IXTEKO LIZENTZIA UKATZEA
149	2015/09/24	2012KO APARTEKO ORDAINZARIAREN ZATI BAT ONARTZEA
150	2015/09/24	OBRA TXIKIEN LIZITAZIO-AGIRIEN ONARTZEA
151	2015/09/25	OBREN LIZENTZIA EMATEA ESTALKIA KONPONTZEKO LA VILLA, 19
152	2015/09/25	OBREN LIZENTZIA EMATEA FATXADA KONPONTZEKO IMPERIAK, 11
153	2015/09/25	OBREN LIZENTZIA EMATEA KANPOALDEKO AROTZERIA ALDATZEKO HORNO, 5
154	2015/10/01	ERROLDAN OFIZIOZ BAJA EMATEA
155	2015/10/01	ALKATEA ORDEZKATZEA
156	2015/10/01	LUDOTEKARAKO AISIALDIKO BEGIRALEA KONTRATATZEA
157	2015/10/01	ISUN HERTSATZAILEAREN BALIOGABETZEA
158	2015/10/01	URRIAREN 6RAKO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA

### **3.- UDAL ALDIZKARI INFORMATIBOAREN ONARPENA, EGOKIA BADA**

Alkate andreak agiri horrek izatea nahi dituzten ezaugarrien berri eman du, eta kide guztiak gonbidatu nahi ditu gai honetan lan egitera.

Saenz de Ugarte andreak adierazi du ez duela kostua esagutzen. Gainera, beste informazio kanalak egon daitezke, esaterako: Mendialdea Press, udaleko web-orria, informazio panela, bando eta iragarki taula edo lantaldeak; hori dela eta, ez du sortzeko beharra ikusten.

Muñoz jaunak esan du informazio kanalak egon badaudela, baina informazioa ez zaiela heltzen biztanle askori, eta pertsona guztiek ez dutela Internetarako edo teknologia berrietarako konexiorik. Hortaz, bilatzen ari da webean dagoen informazioa paper euskarrian islatzea, bizilaguneko 0,30€ argitalpen bakoitzean, guztira 400€ zenbaki bakoitzak.

Quintana andreak adierazi du informazioan gastua izango zela 5.000€ko kostua gehi Mendialdeko 3.000€, gurea bezalako udalerrri batean gastu izugarria informazioan.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du udal web-orri berria abian jarri eta informazio panela nola funtzionatzen duen ikusi arte.

Muñoz jaunak esan du informazio hori herritarrei jakinarazi behar zaiela, eta ez dela kanpoko arduradun egongo, gobernu taldea bera arduratuko da.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du abstenituko dela nahiko informaziorik ez duelako, eta galdetu du zein den bozkatu nahi den akordioa.

Muñoz jaunak adierazi du sortu den bezalako eztabaida ireki nahi dela gai horren inguruko ideiak emateko.

Herrador jaunak adierazi du eztabaida alde zurretik sor litekeela, eta ez Osoko Bilkuran.

Hortaz, gaia atzeratu egin da, hurrengo batean sakonago eztabaidatzeko.

### **4.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA**

Alkateak aurreko bileratik egindako kudeaketak adierazi ditu:

-Beheko solairuko komunean irisgarritasun lanak egiten ari dira; kostua 10.905€k izanda.

-Ignaziotar Bideari buruz, beste eskualdeekin bildu nahi da, panelen bat jarri, eta herritarrekin hitzaldiak antolatu, azaro inguruan.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotzi bezala, H.A.P.O. gaiari buruz adierazi du gaur bilera izan duela, eta behin betiko txostenaren zain dagoela.

Erein diru-laguntzen inguruan, foru planerako egin zen proiektu bera aurkeztuko dela bateragarriak direlako.

Edukiontzien inguruan, Ingurumen Sailekoek egon dira hesiarena aztertu eta egiteko.

Bukatu gabeko obren inguruan: biomasa galdara amaituta dago, eta Araba Camperrean lanak amaitu dira -farolak jartzea besterik ez da falta-.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du garbigunea dela eta metro gehiago hartuko diren. Ruiz de Loizaga jaunak erantzun du planoa bidali zutela, eta dauden lurak nahikoak direla hiru edukiontzietarako.

Herrador jaunak adierazi du uste duela bi edukiontzia izango direla azkenean, tamaina handikoena Kuadrillak kudeatzen baitu.

Saenz andreak, Kultura zinegotzi bezala, kirol jarduerak aipatu ditu, atzo bertan hasi zirela Agua y Jardín S.L. enpresari esleituta.

Herrador jaunak galdetu du ea arazoren bat egon den. Saenz andreak azaldu du hasierako ordutegiarekin gaizki-ulertua egon zela.

Era berean adierazi du euskara eskolak urriaren 13an hasiko direla, erdiko maila euskaltegi baten bitartez; hasierako maila udalak kudeatuta –aurrekoak ez bestelako baldintzetan-.

Quintana andreak galdetu du hasierako mailan ez ote dauden Udaleko diru-laguntzak. Zinegotzi andreak ezetz erantzun du arautuko hezkuntzako baldintzak ez dituelako betetzen; izan ere, ez da erraza izaten behar guztiak kontuan batzea.

Atzo ere hasi zen ludoteka dinamizatzailearekin, egunean bi orduz.

Herrador jaunak galdetu du rokodromori buruz berririk dagoen.

Ruiz de Loizaga jauna dagoen tokian uztearen alde azaldu da, nahiz eta larrialdietarako irteera utzi behar den. Ez dute nahi behin-behinean beste tokiren batean kokatzea.

Herrador jaunak adierazi du toki berria ezarri nahi dutela hasiberrientzat, eta jarraitu oraingo tokian esperientza handiago duten erabiltzaileek.

Muñoz jaunak azaldu du asmoa dagoela behin betiko kokapena ikastolako gimnasioa izatea, eta etorkizunean teknifikazio zentro bat.

Quintana andreak adierazi du ez zaiela abisua eman azokarako bilerara joateko, aurrekoan bezala.

Saenz andreak egoki ikusi zuen erakunde bakoitzeko ordezkari bat parte hartzea.

Herrador jaunak adierazi du aurrekoan bezala gertatu dela, eta ez zaiela abisua eman.

Ruiz de Loizaga jaunak azaldu du deitzen diren bilera guztietara ez dutela joan behar.

Herrador jaunak esan du lantalde irekietara deitu zaiela, besterik ez.

Puntu honetan, gaiaren inguruan bertaratutakoen artean eztabaida sortzen da.

Arenaza andreak, Gizarte Gaietarako zinegotzi bezala, Haurreskolarekin izan duen bilerari buruz eta Udalarekiko harremanaz hitz egin du.

Etxebizitza komunitarioa kudeatzen duen G.S.R. enpresarekin bildu dira, harremana lantzeko eta zerbitzua baloratzeko.

Atzo A-25 egunaren inguruan lantaldearen bilera izan zen.

Eta kontsultategiaren inguruan bilera egin da osasun arloko langileekin, arkitektoarekin, eta eskualdeko arduradunarekin eraikinaren moldaketei buruz, eraginkotasunean.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du zer den Haurreskolako mantenimendu gaia. Zinegotzi andreak azaldu du orain arte egin ez diren konponketa txikiak direla.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotzi bezala, Araba Camperi buruz hitz egin du; izan ere, ordenantza prestatzeko lantaldea osatu da.

Mapa topografikoei buruz, euro batean saltzea proposatu zen; baina hasiera batean, Antoñanako trenean, Kuadrillan eta Udaletxean.

Web-orria eta informazio panela bukatzeaz daude.

Aurrekontuari buruz, datorren astean EAJko taldeari deituko zaio proposamenen inguruan lan egiteko, eta hurrengo osoko bilkurara eraman ahal izateko.

Bukatzeko, Batzar Ekonomikoak jolastokiaren estalia eskatuko du Erein diru-laguntzetan.

## **5.- MOZIOAK**

Bi udal-taldeen batera aurkezten duten errefuxiatu siriarreri buruzko mozioa irakurtzen da.

Europar Batasunak gizatasun-proba ikaragarria du aurrean, azken hamarkadetan izan duen handiena, eta orain arte emandako erantzunak ez du proba hori gainditu, inondik ere. Gehiegikeriak mugan, krisiari aurre egiteko koordinaziorik eza eta lidergo argiaren gabezia dira erantzun horren ezaugarri nagusiak.

Errefuxiatuen krisia da, bai, baina baita Europarena eta hark emandako erantzun negargarriarena ere. Europako agintariek egoerak eskatzen duen mailan jardun behar dute, nazioarteko zuzenbidea betez eta babesa behar dutenak pertsonak babestuz.

2011ko martxoaz geroztik, Siriako gatazka armatuaren ondorioz ehunka mila pertsona hil dira, horietako asko zibilak; beste milaka pertsona atxilotuta edo bahituta daude, eta tortura edo tratu txarrak jasotzen dituzte; beste asko egoera kaskarrean bizi dira setiopeko hirietan. 85.000 pertsona inguru desagertu dira. Bai Siriako gobernuak bai oposizioko talde armatuak giza eskubideen aurkako gehiegikeriak eta gerrako krimenak gauzatu dituzte: presoak hil, torturatu eta jo dituzte.

Gatazka armatu larri horren ondorioz, gaur egun 4 milioi errefuxiatu baino gehiago dago, eta gehien-gehienek ondoko herrialdeetan bilatu dute babesa, hau da, Jordania, Libanon, Iraken edo Egipton. Beste 7,6 milioi pertsona lekualdatuta daude Siriako mugen barruan. Hortaz, 11 milioi pertsonak baino gehiagok, Siriako biztanleen erdiek inguruk, beren etxea utzi behar izan dute.

Nazioarteak egoera horri begira izandako erantzuna kaskarra izan da. Premiazkoa da biztanleria zibila babesteko eta nazioarteko zuzenbidea urratzen duten krimenei aurre hartzeko ekintzak abian jartzea. Nazioartearen gelditasunak areagotu egiten du giza eskubideen aurkako urraketen erantzuleen zigorgabetasuna. Nazioarteko kide denez, Espainiak ere badu erantzukizunik krisi humanitario horren gainean; hortaz, uste dugu Espainiako gobernuak Siriako gatazkatik ihesi datozen pertsonen giza eskubideetan oinarritutako erantzuna eman behar duela.

Hori guztia dela-eta, Kanpezuko Udalak honako hau eskatu nahi dio Espainiako gobernuari

eta Arabako Foru Aldundiari:

1) Eman diezaiela merezi duten erantzuna lau milioitik gora errefuxiatuei, legezko bide segurua eskainiz. Behar-beharrezkoa da birkokatze-kupoa nabarmen handitzea, bisa humanitario gehiago ematea eta familiak bateratzeko erraztasunak eskaintzea. Lehenetsuna eman behar die arriskuan dauden emakume eta neskatxei, behar medikoak edo ahalmen urritasunak dituzten pertsoneri eta babes-behar bereziak dituztenei.

2) Susta dezala nazioarteak martxan jartzea Siriako biztanleria zibila babesteko ekintzak, baita nazioarteko zuzenbidea urratzen duten krimenak prebenitzeko ekintzak ere, gerrako krimenak eta humanitatearen aurkako krimenak barne.

3) Eska diezaiola Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari Siriako auzia Nazioarteko Zigor Gortera eramateko, eta agin dezala Bashar Al-Asad presidentearen eta haren hurbileko laguntzaileen aktiboak izoztea.

4) Susta dezala Siriako gobernuari egiten zaizkion arma-transferentziak bertan behera uztea. Eragotz dezala giza eskubideen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gauzatu dituzten siriar talde armatuei armak eta bestelako laguntza militarra ematea. Berehala ezar dezala Estatu Islamikoaren indarrei munduko edozein herrialdetan arma guztiak enbargatzeko agindua.

4) Babes finantzario nahiz tekniko handiagoa eskain diezaiola Nazio Batuek Siriako krisiari aurre egiteko proposatu duten Eskualdeko Erantzun Planari.

Horrez gainera, Kanpezuko Udalak beregain hartzen du konpromiso hau:

1) Kanpezuko Udalean Espainiako gobernuaren esku jarriko du Siriako errefuxiatuak birkokatze plaza kopuru nabarmen bat, eta behar adina baliabide bideratuko ditu beharrezko gizarteratze-programak ezartzera.

Bozketara jarri da, eta bertaratutakoek aho batez onartu egin dute.

Alkate andreak adierazi du Udalak deia egin diela bizilagunei etxebizitza erabilgarriak dauden ezagutzeko; eta A.F.A.rekin batera lanean ari direla.

## **6.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Alkate andreak galdetu die udal-taldeek bozeramaileei mintzagairen bat azaldu nahi duten.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du jendearen arretarako bulegoa esleitzeko epeaz.

Ruiz de Loizaga jaunak azaldu du kontratazio mahaia ostegunean, 8:30ean, izango dela.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak eta hamabostean. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.